

Irudiak Bideoak Denda Harpidetza Txokoa Zorion Agurrak Eskelak Zerbitzuak

• OARSOALDEKO •
HITZA

GAIAK IRITZIA HERRIAK HARA! AGENDA #HONDARRIBITIKGREZIARA

Nork: [erik gartzia](#) -maiatza 25, 2016

SAGARDOA IZANGO DA LARUNBATEKO FESTAREN PROTAGONISTA



Giro ederra espero dute XXVII. ekitaldian.

Maiatzeko azkeneko asteburua da datorrena, eta urtero bezala, Oiartzungo Sagardo Eguna ospatuko da. 27. ekitaldia izango da aurtengoa, eta ohi bezala, egitarau oparoa osatu dute, goiz eta arratsaldekoa.

11:00etan hasiko da Sagardo Eguneko festa. Artisauen zein baserrietako produktuez osatutako erakusmahaiak jarriko dituzte Done Eztebe plazaren inguruan. Horrez gain, sagar tarta lehiaketa eta desafiyua ere egingo dituzte. Ardien ile mozketa erakustaldia ere egingo dute goizean zehar, eta Oiartzungo baserrietako sagardoa dastatzeko aukera ere egingo da. Hori guztia kale animazioak lagunduta. 14:00ak arte iraungo du goizeko jai giro ofizialak.

Arratsaldean, berriz, 18:00etatik aurrera hamabost sagardotegietako zukuak dastatzeko aukera egongo da. Gehienak —hamahiru— Gipuzkoakoak dira, eta Nafarroatik eta Lapurditik bana etorriko dira. Gainera, alkoholik edaten ez dutenentzat, txokolate jatea egongo da. Haurrentzako jolasak ere antolatu dituzte.

Honakoa da hamabost sagardotegien zerrenda:

- Baleio (Oiartzun).
- Ordozelai (Oiartzun).
- Izeta (Aia).
- Larrarte (Astigarraga).
- Lizeaga (Astigarraga).
- Oiarbide (Astigarraga).
- Petritegi (Astigarraga).
- La cidrerie (Biriatu).
- Otsuenea (Hernani).
- Larre-Gain (Hernani).
- Goiko Lastola (Hernani).
- Elutxeta (Urnieta).
- Otegi (Lasarte-Oria).
- Lindurrenborda (Lesaka).
- Aginaga (Usurbil).

SAGARDOEGUNA



ERIK GARTZIA
